

Karkara

karkara.com

 **Orioko eta Aiako aldizkaria** · 2014ko abenduaren 19a · 357. zenbakia. 26. urtea



Baratzagintzan urrats bat aurrera

Baratzagintza tradizionalak irauten duen arren, gazte kalekumeeek baserrira jo dute, eguneroko ogia emango dien bide berrira.

8

Elkarrizketa
Ana Martin

25

Akuilua hartuta
Eli Lasa

26

Elkarrizketa
Olentzero - Mari Domingi

35

Kritika
Lurretik Lurrera

azkue

karrozeria



Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com

Zorionak eta Urte Berri On!

JATETXEA

Galerna

Antillako Hondartza 5
20810-Orio-Tel.:943 89 04 16



ardoak, urdaikiak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

**etxeraino
eramaten ditugu**



943 83 09 84

aia lertxundi, 36
ORIO

260 €
239 €
ROWENTA 25V

155 €
120 €
BRAUN SILK-EPIL 7

49 €
65 €
PHILIPS

128 €
170 €
NINTENDO

119 €
99 €
SAMSUNG YOUNG 2

380 €
460 €
SAMSUNG 43"

79'90 €
109'90 €
ENERGY SISTEM BLUETOOTH

IZARRA Bideoa

= TIEN 21 = Eusko gudari, 44 • 943 833 881 **= TIEN 21 =**

**ZORIONAK
ETA URTE
BERRI
ON**



XS

arKiteKtura

herrikobarra 6, zarautz

eraikuntza zerbitzuak
errehabilitazioak
obrak
proiektuak
txostenak
ITE-ak
eraikinen mantenua

Borja Agirresarobe Lopetegi
635 731 722

ARISTERRAZU
jatetxea

Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

Gabon

TABERNA

✓ Pintxoak
✓ Plater konbinatuak
✓ Ogitartekoak

943 83 06 09

ITZIAR

kirolak

Tel. 943 83 31 03

ODITZ

Forma zahaleko oinetakoak
gizon eta emakumeentzat

tel. 943 83 00 89

357

HASI BERTSOTAN

ANTONIO ZUMETA "TXANKA" (DOINUA: FRANTSEZ EUSKALDUNARENA)

Idoia Etxeberriari bertsoak

Neska gazte bat oso indartsu
Azaldu zaigu herrian
Hamar arroako harritzarra
Jarri du bizkarrian
Ikusitzen da nola dagoen
Sasoiko ta indarrian
Hoi haustekorik momentun ez da
Eguzkiaren azpian

Bederatziko kubikoakin
Lengon jarri zendun marka
Dotore asko hiru minutun
Hiru alditan altxata
Herri guztia txoraturikan
Zuri begira jarrita
Esaten zuten inguru hontan
Holakorikan ez da ta

Hogeita bi urte bakarrikan
Oraindik zera gaztia
Ona zera ta laguntzeko ere
Onduan dezu jendia
Txoragarria zuri Idoia
Harriakin ikustia
Zuk bakarrikan jakingo dezu
Non daukazun topia



Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria

Lore Berasaluze

Erredaktore burua

Miriam Garcia

Erredakzio taldea

Onintza Aiestaran,
Olatz Artola,
Iñigo Exposito,
Jon Garate,
Iñaki Iturain,
Idurre Lizarralde,
Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzkudun

Publizitatea

Idurre Telleria

Ale honetako

kolaboratzaileak

Edorta Agirre
Anuska Esnal,
Eider Goiburua,
Eli Lasa,
Garbiñe Manterola,

Diseinua

Saioa Perona

Banatzaileak

Nora Pielago eta
Leire Zinkunegi (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen edota iritzien erantzuz-
kizunik. KARKARAN argitaratu-
takoa berrieman daiteke,
osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

TOKIKOM

LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala

Eusko Jaurlaritzaren
Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabideaGipuzkoako
Foru Aldundia

Publizitatea kontratatzeko:

Karkara

688 859 682 (Idurre)

karkara@karkara.com



karkara.com

Aian Berri aldizkariaren lehen alea

Aian Berri aldizkariaren lehen alea atzo kaleratu genuen. Aldizkari hau, hilean behin aterako da gutxienez, albistearen arabera. Helburu bakarra du, Udalean hartzen ditugun erabakien informazio zuzena izatea, bakoitzak behar duen arretarekin. Aldizkaria etxetik banatuko da. Ea gustuko duzuen herritarrek. Hemen lehen alea: http://www.aia.eus/eu/fiche-ros/33_4810eu.pdf ■ **Igor Iturain.**

672 garaipen

Angel Obregon Sierrak, CR Santanderko presidenteak, Orioren garaipenen zerrendan ekarpenak egin dizkigu. Orioren palmaresean kontatu gabe genezkan zazpi garaipenen dokumentuak eman dizkigu: hiru bateletan eta lau traineriletan. Honela daukagu, beraz, garaipenen taula-orokorra eguneratua: 1879-2014 urte bitartean tostako arrauketan 672 garaipen! Bakoitzak atera ditzala kontuak... Banan bana kontatzen hasita ere, *bat, bi, hiru...* seiehun eta hirurogeita hamabira iristeko, aspertu ederra hartu behar duzue! ■ **Orio Arraunean.**

Erregeen kabalgatan parte hartu nahi duenak izena eman dezake

Ohitura zaharrari heldu, eta, aurtenera, erregeen kabalgata izango da Orion. Meltxo, Gaspar eta Baltasar, hiru errege magoak, Oriora etorriko dira haurrak agurtu eta etxeetan opariak uztera.

Baina, opariak jasotzeaz gain erregeekin batera Orioko kaleetan ibili nahi duzula? Eman izena. Panderoa jo nahi duzula? Eman izena. Panderoa ez, tanborra jo nahi duzula? Eman izena. Arratsaldeko iluntasuna antortzekin argitu nahi duzula? Eman izena. Erregeei laguntzeko eta festaren parte izateko aukera daukazu. Horretarako izena eman behar duzu abenduaren

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri - Orioko edo Aiako Kultur Etxean - edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, gure egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARA bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

23an, 19:00etan, Ikastolako pergolan. Lehenengo entseguak abenduaren 26an izango da, ordu berean. Izena emateko ezinbestekoa izango da 2014an 6 urte betetzea, eta antortzekin laguntzeko 18 urte beteta eduki behar dira. Izena emanez gero agertzea derri gorrezkoa da, ez hutsik egin. Laguntza behar dugu! Animatu eta parte hartu! ■ **Talai Mendi elkarteak.**

Ederki pasa dute Ametsa gaztelekuko gazteek Txuri Urdinen!



Ametsa gaztelekuko gazteek, primera-ko arratsaldean igaro dute Txuri Urdineko izotz jauregia. ■ **Txurumuski Kultur Astialdi Gazte Elkarteak**

Aian Berri, PNVn ezer berri!

Aiako EAJ-k Udala erabiltzen du hauteskunde kanpaina egiteko, interesatzen zaizkion berriak bakarrik zabalduz. Zergatik ez du aipatzen Frackinga? Zergatik ez du aipatzen ezer Elkanoko frontoiari buruz? Adibidez, salaketa egon dela proiektuaren aurka eta momentuz obrak atzeratu direla? Erabilitako koloreak ere oso ondo pentsatutakoak. Nork idatzi du *aldizkari* hau, Udalak ala EAJk? ■ **Aiako Bildu.**

Jose Angel Zaldua Orioko kirol zerbitzuak aztertzen

Orioko EAJk, sei lan talde martxan jarri ditu herriko beharrak aztertu eta behar diren hobetzeak datorren urteko hauteskunde programan sartzeko Jose Angel Zaldua, EAJren alkategaia, bere lan taldearen eskutik Orioko Kirol instalakuntzak begiratzen ari da, ikusteko ea nola kudeatzen den bakoitza eta zein diren gaur egun dauden beharrak. Orion gero eta pertsona gehiagok egiten du kirola, eta EAJren helburua da erraztasuna jarri oriotarrei segi dezaten gure kirol instalakuntzekin gozatzen.

Padeleko pistak izan ziren Jose Angel bisitatutako instalazioetako batzuk. Kirol hau oriotar askok praktikatzen du gaur egun, eta beharrezkoa da bere egoera aztertzea etorkizunerako. Lan talde esberdinek billerak egingo dituzte herriko eragile guztiekin, denen artean dauden beharrak mahai gainean jartzeko eta EAJk ahalik eta programa egokiena aurkezteko datoren hauteskundeetan. ■ **Orioko EAJ.**

Boulderra hilean behin irekiko dugu

Badira urte batzuk Talai Mendiko lokalean boulder bat eraiki genuela. 20 metro inguruko paretan eskalatzeko teknikak lantzeko aukera ematen die elkarteko kideei. Gure lokalean obra

egin ondoren, eskalada probatu nahi duen guztientzat boulderra irekitzea erabaki dugu.

Nahi duen oro etor daiteke boulder eskalada egitera. Hilean behin egongo da zabalik, hirugarren igandean, udako hilabeteetan eta Talai Mendik jarduera asko dituen izan ezik. Hauek dira boulderra irekita egongo diren egunak: urtarrilak 18, otsailak 15, martxoak 15, apirilak 19, irailak 20, urriak 18 eta azaroak 15. Ezagutu nahi duenak, egun horietan 16:00etatik 19:00etara Talai Mendiren lokalera –Iturbide kalea e, beheara– etorri besterik ez du.

Elkarteko kideak egongo dira boulder eskalada eredu nola praktikatzeko duten azaltzen, eta laguntza behar duenari erakusten. Baina ez dute haurtzaindegian lanik egingo, joaten diren umeen gurasoek bertan egon behar dute seme-alabak zaintzeko. Jende asko biltzen bada, arduradunak txandak egingo ditu, gerturatzeko diren guztiek kirola

Okerrak zuzentzen

Aurreko KARKARAN, 356. alean, Ulibarri proiektuari buruzko errortarajea egin genuen. Proiektuaren barruan dauden ikastetxeen artean Zaragueta eta Lardizabal eskolak aipatu genituen. Akatsa zuzendu nahi dugu, Orioko Herri Ikastola ere Ulibarri programaren barruan baitago. Barkatu okerrak..



la egoera lasaian praktikatu dezaten. 2015etik aurrera, Talai Mendiko boulderraz goatzeko gonbita luzatzen dizugu. Animatu etortzera! **TalaiMendi.**

Muskuilu Harriaren argazki lehiaketa



Orio itsasoan eta erriorearen artean gai hartuta egin zituzten 2. Muskuilu Harria txapelketarako argazkiak. Infantilen kategoriako lehen saria Mikel Erkiak irabazi zuen, Txalupa zaharra, kanoa gazten etxea titulua duen argazkiarekin. Helduen mailan Josune Zabaletaren Lainopean argazkia izan zen irabazlea. Guztira 28 argazkilarik hartu zuten parte txapelketan eta sari banaketan 50 pertsona inguru bildu ziren. Lunch eder bat prestatu genuen eta giro paregabea izan genuen. Abenduaren 8an izan zen ekitaldia. ■ **Muskuilu Harria elkarte**

ZORIONAK!

Festa batzordeari!

Biribil-biribilak izan dira sanikolasak. Antolatutako ekimenak, hamaika. Festa programa ekintzez josi-josia: haurrentzako, gazteentzako nahiz helduentzako. Guztiek izan dute festaren parte izateko aukera.

Festak antolatu dituzten taldea eraberritua, irekia eta anitza izan da, eta festei aire freskoa eman die. Festa parte hartzaileen alde egin dute, eta herritarren parte hartzea lortu dute.

Eguraldiak lagundu ez duen arren, oriotarrak kalera atera dira eta festaz gozatu dute. Hobetzekoak egon arren, antolakuntza itzela izan dute San Nikolas jaiek. Zorionak, beraz, festa batzordeari eta antolakuntzan ibili den orori.

JAIOTAKOAK

- Egoi Manterola Etxaniz, Orion, abenduaren 12an.
- Hugo Galan Moreno, Orion, abenduaren 6an.
- Markel Maiza Etxezarreta, Orion, azaroaren 23an.
- Alixe Iturrioz Muriana, Orion, azaroaren 18an.

EZKONDUTAKOAK

- Ainara Castro Larrañaga eta Jose Enrique Moran Gimenez, Orion, abenduaren 11n.

HILDAKOAK

- Karmen Manterola Huelgun, Aian, azaroaren 19an, 89 urte.
- Javiera Eizagirre Ibarrola, Orion, azaroaren 22an, 85 urte.
- Pello Lertxundi Beldarrain, Orion, azaroaren 22an, 91 urte.
- Luis Torre Beci, Orion, azaroaren 24an, 74 urte.
- Ana M^a San Sebastian Murua, Orion, azaroaren 28an, 57 urte.
- Antonio Makazaga Solaberrieta, Orion, azaroaren 30ean, 83 urte.

- Lorentzo Portularrume Izeita, Aian, abenduaren 1ean, 69 urte.
- Dolores Miralles Elizondo, Orion, abenduaren 4an, 94 urte.
- Mariano Azkue Azpiroz, Orion, abenduaren 5ean, 92 urte.
- Joxe Etxezarreta Iribar, Orion, abenduaren 5ean, 67 urte.
- Aitor Martikorena Jauregi, Orion, abenduaren 10ean, 45 urte.
- Maria Eizagirre Peña, Orion, abenduaren 14an, 86 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora: **943 83 15 27**



Deiadarrean Harribil dantza taldeko dantzariak. KARKARA



Elektrotxarangak dantzan jarri zituen oriotarrak. KARKARA



Olentzero eta Mari Domingi, abenduaren 24ko etorreran. K. OLARIAGA

Mahaiaren bueltan, dantzan

Hamaika modu daude Gabonetan deskonektatzeko -edo konektatzeko-.

Zuhaitzak biluztu dira, hostoak erori. Haizeak dantzan jarri du orbela. Dantzan ibili dira zibak, hostoen pareko. Hegan, batzuetan; bilintzi-balantza, besteetan. Gira eta bira, lurrean kieto gelditu arte. Dantzan herritarrak, herritarrek jarritako musikarekin. Bozgorailuetatik Ander Carrera, Karlos Rodriguez-Sierra, Iker Gurrutxaga, Iker *Txanka* eta Unai *Illarrasek* jarritako musika. Klean hotz, baina plazan bero. Basoa eskuan eta gorputza dantzan, hotzari aurre egiten.

Dantzan, egunero, Pello eta Nikolasa. Iluntzero-iluntzero kaleetan kalejiran ibili dira, txistulariak eta txaranga lagun zituztela. Haize eta perkusioak batzen dituen txarangak herriko haur, gazte eta helduak batu ditu. Klean gora eta behe-
ra, salto gora eta salto behe-
ra, guztiak jarri ditu dantzan. Eta gitarra eta bajua gehituta, are dantzagarriagoa. Elektrotxarangaren doinu alaiekin poteoan ibili ziren goiz eta arratsalde oriotarrak.

Idoia Etxeberriak eta Beñat Solaberrietak banderak dantzan jarrita hasi ziren sanikolasak. Dantza franko egin ostean, bukatu dira. Haizea ibili arren, banderek jada ez dute dantzarik egiten. Konturatzerako, ihes egin dute herriko festek, haizeak bezala.

Dantzan baino, mahaiaren bueltako janarekin eta edanarekin berotzeko garaiak heldu dira. Familiaren epelean edo maleta hartu eta txoko ezezagunak ezagutuz; hamaika modu daude Gabonetako oporretan deskonektatzeko -edo konektatzeko-.

Orion ere makina bat aukera izango dira Gabonak gozatze-
ko: Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, Harribil dantza emanaldia, San Silbestre krossa... Izan herrian bertan edo kanpoan, ondo pasa Gabonak eta ongi hasi 2015 urtea.

Zer eskatu diozu Olentzerori?



“Olentzerori eta erregeei eskatzen dizkiet opariak”

Xbox -erako bideo-joko bat eskatu diot Olentzerori. Forza Horizon, auto karreren jokoa da eskatu dudana. Asko gustatzen zaizkit bideo-jokoak, batez ere kotxeenak. Joko asko ditut, baina nire gustukoena FIFA da, futbola asko gustatzen zait eta. Hala ere, ez dut beti bideo-jokoe-tan jolasten, kalera asko irteten naiz.

Cristiano Ronaldoren futboleko botak ere eskatu dizkiet. Futbolean jokatzen dut Zaraguetako taldean.

Olentzerori eta Hiru Erregeei, biei eskatzen dizkiet opariak. Oraindik ez dut pentsatu zer eskatu erregeei.

Olentzeroren etorrera ikustera joaten naiz, eta gutuna ematera.

Josu Urruzola

5. maila

“Olentzerok beti asmatzen du ekartzten duenarekin”

Aurreko urtean erlojua ekarri zidan Olentzerok, baina hautsi egin zait. Beste erloju bat ekartzeko eskatu diot aurtent.

Arropa ere eskatu diot. Beti eskatzen diot arropa, iaz ere ekarri zidan. Beti asmatzen du ekartzten didanarekin. Futboleko baloia ere eskatu dut, asko gustatzen zait eta futbolean jokatzea.

Erregeei ere eskatzen dizkiet opariak, baina ez diet ezer eskatu oraindik. Pentsatu egin behar dut. Gutunak idazten dizkiet guztiei.

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera ikustera joaten naiz Gabonetako oporretan. Familia bisitatzen dut eta toki askotan biltzen ditut opariak.

Suhar Beraza

4. maila

“Antortxa eramatzen dut Olentzeroren etorreran”

Futbola asko gustatzen zait, Orioko F. T. jokatzen dut. Horregatik, Ronaldoren botak eta baloia eskatu dizkiet Olentzerori. Oso futbol-zalea naiz.

Erregeek ere ekartzten dizkirate opariak, baina ez dut eskatzen, sorpresa izatea nahiago dut. Olentzerori nahi dudana eskatzen diot, gero Gabonetako opor guztiak izaten baititut opariekin jolasteko.

Gabonak oso gustuko ditut, oporretan egotea ondo dago. Baina, batez ere, Olentzeroren etorrera gustatzen zait. Lagundu egiten dut etorreran, antortxa eramaten. Oso ondo pasatzen dut Olentzero eta Mari Domingi ikusten.

Asier Alberdi

6. maila

EGIGUREN

Argazki Estudioa- Foto Studio

- Argazki Sesioak: Jaio berriak/ Umeak/ Familiak (75€tan)
- Argazki Anpliazioak edozein tamainuan
- Eskuz egindako Markoak edozein tamainuan
- Album Profesionalak
- Photocall Sesioak (10 argazki 15€tan)
- Jaunartze Albumak (225€tatik hasita)
- Karneteko Argazkiak momentuan (5€tan)
- Argazki Zaharrak Berritzen dira (5€tan)

EGUBERRI ON PASA

Abenduak 24 Goizean
9:00tatik 14:00tara
Argazki Sesioa
Baseritarrez Jantzita
15€

eta Urte Berri on

EGIGUREN

Argazki Estudioa- Foto Studio

“Pelikula batean hainbeste lore egoteak eragina izan du loregintzan”

Ana Martin

Lore-saltzailea

Lorezain eta lore-saltzaile familia batetik dator, eta denda dauka Donostian. Bera ezagutu ez arren, bere lana askok ezagutuko zuten, *Loreak* filmeko sortak bereak baitira.

M. GARCIA

Lore artean pasa du bizitza Ana Martinek –Usurbil, 1972-, loreak ditu ofizio, eta loreak protagonista dituen film baten bidez bere lana Euskal Herri osoa ikusi du.

Zergatik loregintza?

Familiagatik. Nire familiak lorategia du eta handik dator nire lana. Aitona lorezaina zen; hainbat lorategi zaintzen zituen eta Bretxako merkatuan loreak saltzen hasi zen, lehenetarikoa izan zen bera. Ikasketak amaitu nituenean hasi nintzen laguntzen ni, eta lore-diseinua ikasi nuen azkenean. Orain denda bat daukagu Donostian, Gureak enpresarena. Nik denda hori koordinatzen dut.

Loreek asko espresatu dezaketela uste duzu?

Bai, noski. Usaimenarekin eta ikusmenarekin asko esan dezakete, adibidez. Gainera loreak oparitu egiten dira: jaiotzetan, urtebetetzeetan, urteurrenetan, amaren egunean... horrek zer bait esan nahi du, transmititu egiten du.

Loreak jaiotzatik hil arte erabiltzen dira, eta baita hil ondoren ere. Beti inguruan ditugu loreak. Eta, azkenean denoi gustatzen zaigu loreak ikustea.

Nola sortu zitzaizun *Loreak* filmean parte hartzeko aukera?

Nire bezero batek ekoiztetxean egiten zuen lana, eta dendara etorri zen. Esan zidan pelikula baterako loreak behar zituela eta erakusgai bat egiteko eskatu zidan.

Nola izan zen lan prozesua?

Proposamenak egin nizekion, gustatu egin zitzaizkien eta aukeraketa bat egon zen. Laurogei lore-sorta inguru egin genituen pelikularako.

Istorioa ez da gaur egun kokatzen, hamarkada bat lehena-go hasten da. Garai hartara egokitu behar izan genituen sortak, orduan erabiltzen ziren lore eta paperetara.

Bestalde, inoiz egin ez nuen gauza bat egin behar izan genuen: lore-sorta ustelak egin behar genituen. Ur berotan jarri, azkarrago heltzeko likidoa bota, hozkailutik atera eta berogailua igo... Erronka izan zen, lore horiek zimelak egon behar zuten baina ezin zuten erori.

Orain arte pelikulatan loreak apaingarri hutsak ziren, oraingo honetan, berriz, protagonista bihurtu dira

Pelikula honetan bai, pertsonaia bat gehiago izan dira. Loreak eskatu zizkidatenean eta sortak egin nituenean ez nekien zenbaterainoko garrantzia izango zuten. Ni ez nintzen grabaketan lanean egoten, lore-sortak egiten nituen eta eraman egiten zituzten. Azkenean protagonismo handia hartu dute, bai.

Zinemaldian ere Donostiako lore dendek protagonismo handia izan zuten. Pelikula batean hainbeste lore egoteak eragin handia izan zuen.

Loreak, loreak besterik ez direla dio filmak. Hori hala da?

Ez, niretzako askoz gehiago da. Norbaiti loreak oparitzen



Ana Martin semeekin etxeko berotasunean. KARKARA

“*Loreak ez dira loreak besterik. Norbaiti oparitzen dizkiozunean bizia duen zerbait oparitzen ari zara*”.

dizkiozunean bizia duen zerbait oparitzen ari zara, denboran transformazio bat jasaten dute eta zuk hori ikusi egiten duzu.

Loreak oparitzeko ohitura jaitsi egin al da?

Ohiturak jarraitzen du, baina aurrekontu txikiagoarekin. Hala ere, ez da Europako beste lekuetan bezala. Urrutira joan gabe, Iparraldean lore-dendara joaten dira astean behin, eta lore-sorta bat eramaten dute etxera. European loreak erosteko ohitura handia dago.

Nork oparitzen du lore gehien?

Oparitzen dira, baina askok norberarentzat erosten dituz loreak. Gure bezero asko 30-50 urte arteko gizonezkoak dira Antiguak dugun dendan. Usurbilen denda nuenean, berriaz, adineko emakumeak ziren bezero gehienak, eta mutil gazteak urtean behin azaltzen ziren, San Valentin egunean. Donostiara joan nintzenean ezagutu nituen egunerokotasunean loreak kontsumitzen zituzten bezeroak.

Dena den, askotan emakumeentzat izaten dira loreak, eta gizonezkoentzako denean zebait *maskulinoa* eskatzen dute. Nik ez dakit lore maskulino eta femeninoak zein diren.

Nola jakin pertsona, momentu edo mezu bakoitzerako lore egokia zein den?

Askotan berei galdetzen diegu loreak jasoko dituen pertsonari buruz: zein kolore janzten dituen, zein estilotako pertsona den, zertarako diren loreak... eta zer esan nahi diozun.

Kinkladenda- Ume arropa

argine.

www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

**75eko DESKONTUA FAMILIA
UGAKIEN TXARTELAREKIN**

AIRIDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

ITZALA

kartetan jokatzeko
aprososa

tel. 943 83 12 59

kutixi
kafetegia
GOSARI GOXOAK

Aritzaga 9, 20810 Orio
Tf: 943 13 15 17

edarteia
ANTILLA
juletsua

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 09

Joana Murgiondo
Aseguru-agentea

ASEGURUAK

C C L
CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagune, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO



Seguros Bilbao
Orioko ordezkaria

Santi Barranco
Telf.: 618581398
Aritzaga, 2 - 2º ezkerre
20810 Orio (Gipuzkoa)

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

WWW.FOTORAMIRO.COM
610 697 668 943 831043
EZAGUTU GURE FACEBOOK



LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu. ☒

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe ☒

Lan txukuna eta merkea ☒

Tfnoa: 943 83 59 00

XABIER URRETA BIZKAIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Atezain automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

943 83 17 74
Arrantzale, 31 20810 ORIO

SU KIA
TABERNA- JATETXEA

On egin eta gero... hartu KOPA eta TOPA!!

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARIAK
- OGIA

TF.: 943 892 129
ABAROMENDI 38, 1. BAXUA

**GABON EGUNEAN
ESTUDIOKO ARGAZKIAK
BAKOITZA 3 €**



OREKA FISIOTERAPIA

**TENDINITISAK
LUMBALGIAK
ARTROSIA
ZEFALAK ...**

MASAJE TERAPEUTIKOA
BENTOSAK, AKUPUNTURA
ESKUZKO TERAPIA
OSTEOPATIA

943 13 35 37

ARITZAGA KALEA, 11 BEHEA





Rikardo Uzkudun

Plazako merkatua

Lan gutxi dago urte bukaeran gure bazterretan. Mahastietan eta herriko platanoarboletan kimatzea tokatzen da, eta baratzetan, lurrak atse-den hartzeko garai da. Lurrak bezala, ordea, nekazariak... eta beste hainbatek: Kilometroak, Orioko Curriculum, Karkaren 25. urteurrena, Txurumuskiren jarduerak, Talai Mendiren irteerak, Mandalaren hitzaldiak, kirol elkarten asteroko lehiak, Esperientzia eskolaren tailerrak, Euskaraz Bizi Bizi jardunaldiak, Gure Bazterrak kontzertuak, herri eta auzoetako festak.... Zientoka ekintza, bakoitzak berea antolatzen nahikoa lan izan dugu, eta jendea erakartzen beste hainbeste.

Antolaketa lanetan elkar ezagutu dugu, ardurak hartzen aritu gara, delegatzen, eskakeatzen ere ikusi ditugu mordoxka, elkar igurtzi gara, baita potrosoekin barrabiletaraino jarri ere, eta gauzak ondo atera direnean subidoia konpartitu dugu.

Ez dira garai onak jendea mugiarazteko, gauzak diren be-

zala esan behar dira. Gizartearen parte hartzea kezkatzen hasteko modukoa da. Baina, aurtan, ez dago ukatzerik Oriok zer esana eman duela. Eta herritik kanpo bizi den edozeinek esango dizu Orio herri bizia dela, are gehiago, Europako herrialde batetik etortzen bada.

Eta negua bukatu bezain pronto dator erronkarik handiena, Udal hauteskundeak. Herritarrek maiz kexatzen gara politikarien interesez, txiringitoaz, eta sarritan lapurtzat jotzen ditugu denak sagar ustelak balira bezala... baina, jarduteari laga eta zein ausartuko da urratsa ematera?

Orain ari dira alderdiak zerrendak osatzen... edo osatu nahian. Ez dakigu aurreko adarrak kimatu edo arbola berriak landatuko dituzten, baina seguru

nago nahikoa lan izango dutela saila osatzen.

Gero, behin osatuta, beren produktuak saltzen saiatuko dira, elkarri tokia kendu nahian ibiliko dira merkatuan. Baina, Pepe Mujikak dioen modura, ez gaitzala merkatuak gu gobernatu behintzat, gobernatu dezagun guk merkatua.

Eskakeatzen ere ikusi ditugu mordoxka, elkar igurtzi gara, baita potrosoekin barrabiletaraino jarri ere, eta gauzak ondo atera direnean subidoia konpartitu dugu.

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak: Arrain zopa
Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel.: 943 83 00 05/
943 13 25 32

Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel.: 943 13 00 77
Fax: 943 53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Arrantzale Kalea, 65
20810 ORIO (Gipuzkoa)

Eguberrietan, mahaian

Gosea lehenaldiko kontua da. Elkartu eta giroaz gozatzea dugu helburua. Erosi tamainan, zakarrontzia izaten delako egun hauetan mesedetua.

Eta... zein arraio ote naiz ni oriotarrei Eguberrietan edo ezkonberritan nola jokatu behar duten esateko? Tira, aginduak bete behar. Gustura, gainera, Orio goxo horretatik etorrira. Hasteko, nire iritzian, platererakoa, %15; hortik gorakoa, %85. Gure festa da, ez saltzaileena; geure burua goxatu behar dugu baina ez platerera begira bakarrik; jakia lagun-garri bat da. Jan, egunero jaten dugu. Horren premian Orion ez dago inor.

Kontua da nolako giroa sortu behar den, jaiak ospatzeko. *Lege zaharreko* erritoak betetzea garrantzi handikoa da: ordurako etorri, burua fresko –egarrituta, alegia–, problemak atean utzita, gainerakoei hitz goxo bat adierazi, umeei protagonistak beraienak bakarrik ez direla argi eta garbi utzi, etab. Taldearen festa da.

Ta? Janaz hitzik ez, ala?

Zer jarri, betikoa? Nola bete denen zaletasuna? Nola sendatu poltsikoko zuloa? Egin behar: elkartu zaitezte arduradunak, hartu lapitza eta paper muturra eta apuntatu:

a) batetik, gustuko jan-edanak zein diren;
b) bestetik, horren arabera, sarrera, mariskoa, arraina, postrea, edaria, jela –baita kikarak, eltze handia, aulkiak...– nork zer ekarriko duen.

Zenbat, ordea? Gosea lehenaldiko kontua da. Elkartu eta giroaz gozatzea dugu helburu. Erosi tamainan, zakarrontzia izaten delako egun hauetan *mesedetua*. Sobratuko dena, txerrija izan aurretik, elikagaien bankura.

Noiz, nola erosi? Pixkanaka. Mahaikide guztien gustua ezagututakoan, begiratu pixka bat hemen eta hor eta, azkenean, aukeratu. Presarik gabe, dendako jana ez baita galduko.

Nondik ekarri? Aspalditik, hiper erraldoi horiek baino herriko denda nahiago izan dugu: hor ia denetik daukagunez, ez dugu autoa hartu behar, betiko saltzaileak sos batzuk aterako ditu, herriko gaztagile, arrantzale, baserritarrari erosiko zaio krisi latz honetan, eta biharamunean bera izango da saldutakoaren erantzule, bertako produktu sanoak erosiko ditugu... komertzio erraldoi horietan ez bezala.

Nola prestatu? Ez egin esperimentu berriegirik aurreneko aldiz. Jaki edo entsalada hori aldeztu aurretik bi aldiz egin eta automatizatuta ekarri behar da. Egingo dugunaren zapore, tenperatura, usaina... dena ezaguna izango dugu. Ez hartu sekula-ko esku-lanak, ez baitu merezi; gorde sakrifizio horiek beste baterako.

Gutziaren bat? Foie-gras, ostra, xanpain... Gogoan izan Lapurdi Gipuzkoa bezain Euskal Herria dela. Eta, sukaldeko lanak egina, postreekin dator politena, goxoena: komunikazioa.

Jakina, hau ez omen da askok espero zutena, gustukoa dutena, baina... Geure burua, Orio, Euskal Herria eta planeta osoa zaindu beharko.

Ondo pasa, aupa Orio!



Edorta Agirre

Futbola, biolentzia eta gaurko baloreak



Eider Goiburu

Azken albisteen artean oihartzun handienetakoa izan duen Deporrek jarraitzailearen erailketa izan da. Mila is-tilu honen inguruan. Batzuk, ez duela futbolarekin zer ikusirik, borroka bila joan ziren taldeak zirela; besteak, berriz, futbol taldeetako ardura dutela, neurriak hartu behar dituztela; eta, azkenik, taldeak, presioari ezin uko eginda indarkeria –ahozkoa barne– adierazten duen edozein zale kanporatua izango omen da.

Baina, benetan pentsatzen al dugu futbola kirola besterik ez dela? Hik hori uste al dun, Anuska?

Alde batetik, emakumeok futboletik kanporatzen gaituzte. Bai, badakit gaur egun emakumeen taldeak ere badaudela, baina izan gaitezen serioak, zein baliabi-

“Hori bai, beti bezala, harmailetan, gizonak goraipatu eta animatzen egon gaitezke”

de dituzte futbol maskulinoarekin alderatuta? Zein babes mediatiko eta sozial? Hori bai, beti bezala, harmailetan, gizonak goraipatu eta animatzen egon gaitezke –hori baita gure lekua–.

Beraz, gizonen kirol bat izaten jarraitzen du, oldarkortasunez beteriko maskulinitate tradizionalaren eremu gorenetakoa. Eta horra eramaten ditugu gure haurrak, milaka pertsona batu eta galtzontzilotan pilota baten atzetik korrika egiten duten gizon taldeak goraiatzera.

Horiek al dira gure hurrei transmititu nahi dizkiegun ereduak? Horiek al dira gure gizarteko baloreak?



Anuska Esnal

Futbola eta biolentzia horrela lotzea azaleko gogoeta iruditzen zaidan. Futbolak erroa, jokoan din. Hire paseaz lagunak emandako ezkerkadaz taldeak lortuko duen golaren fantasia. Errekreoetan askok egin dizkinagu jertseekin tontorrak, aldameneko taldekotzat hartuz eta bestaldekoa aurkari. Inozentziaz beterik joan gaitun gelakideak partidaren bat jokatzera eta, hemen ere, ikusi dizkinagu guraso fin askoak marruka, epaileari isekan edota zeinen seme-alaba den hoberena eztabaidan dabiltzan gurasoak, hil ala bizi. Eskola kirolak al din honen ardura? Eskola kirola debekatu behar al dinagu?

Aipatzen ditunan futbol partidak negozio ditun, Eider! Eskaintzan eta eskaeran oinarritzen dun.

“Guraso fin askoak marruska, epaileari isekan edo zeinen seme-alaba den hoberena eztabaidan”

merkatuaren produktu izarra! Begi txarrez ikusigatik gustura kontsumitzen den neguko plana. Nork ikusten din futbola, eta zertarako? Futbola ikusten duen zalea zeren bila zebilen?

Bi futbol errealitate jarri dizkinagu aurrez aurre, eskolakoa eta maila gorenekoa. Eta bietan ikusten dizkinagu biolentzia adierazleak. Ez al ditun portaera horiek gaur egungo gizarte baloreen ikur? Jendeak ez al din partida horien bidez bere frustrazioak askatzea biltzen?

Futbol partidak ekidite hutsak nire alabak balore egokietan heztea ziurtatuko balit....



Txotx, egindako lanaren alde

Aginagako Errasti sagardotegian bildu ziren, Erria Txikota! jaiaren alde txotx egiteko. Txiri artean Kilometroak festari agur esan zien eta urriaren 5a egun biribila izan zenez, topa egin zuten ospatzeko. Urte osoan egindako lanaren ondoren, azken bazkaria egin zuten lanean ibili ziren herritar askok.

Ardura eta lanak atzean utzi zituzten azaroaren 29an, larunbatean. Autobusa hartu eta Errasti sagardotegira joan ziren. 70 lagun inguru bildu ziren, lagunarteko giro ederrean, egindako lana saritzeko. Festa giroan, amaitutzat eman zuten Erria Txikota! Kilometroak 2014.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk eka-rritakoa dela jarrita.

PERTSIANAK
AKO MAZ
Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...
Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

ASADOR XIXARIO
Eusko Gudarien Kalea, 2
Tel. 943 830 019 - ORIO

GARMENDIA
INMOBILIARIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK
Ibai Ondo, 1
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941



Tamayoren baratzako ur bidoiak. KARKARA

Etxeko kontsumotik kontsumo taldeetara

Baratzagintzak bilakaera handia izan du. **Baserritarrekin lotu ohi den arren, kalekumeek ere jo dute baratzagintzara.** Kontsumo propiotik azokara, eta azokatik kontsumo taldeetara. Bide berriak bilatzen dabiltza.



Errio aldamenean dauka baratza Dibinak. Argazkian lanean ikusten da . KARKARA

TESTUA: OLATZ ARTOLA ETA MIRIAM GARCIA
ARGAZKIAK: IBON BERASALUZE ETA KARKARA

Eman eta jaso, jaso eta eman; ba al dago ederragorik? Erein, fruituak jasotzeko. Lurra ustiatu, haziak landu; gero, uzta biltzeko. Baserritik hurbil kokatu ohi dira baratzak, lur ona dagoen tokian. Lehen, garaian garaiko uzta jasotzen zuen baserriarrak, batez ere, etxeko kontsumorako. Feriara ere jaisten ziren, astean behin, beste baserriarrekin bildu eta herritarrekin berriketan aritzera.

Barazki freskoak, natural-naturalak. Baita esnekiak edo oiloen arrautzak ere. Eta abereak. Urria izanagatik, salmentara zuzendutako ekoizpena ere egiten zen.

Ereduak aldatu dira. Gero eta baserriar gutxiago daude, baina baratzagintzara jo duten kalekume –gazte– gehiago dago. Saltzeko modua ere aldatu da, guztia ez da azokara murgatzen.

Baratzagintza tradizionala

Garai batean ia herri osoa hartzen zuten baratzek. Denbora-ekin, lur sailak eraikuntzarako erabili dira eta, gaur egun, muntoren eta autobidearen artean daude Orioko gehienak. Bertara gerturatuz gero, lurak lantzen dituztenak adinekoak direla ikus daiteke.

Bizi osoa darama baratzean Dibina Lanberrik, amarekin joaten hasi zen umea zela. Hasieran beharrez, etagero gustua hartuta, egunero pasatzen ditu orduak lurra lantzen, haziak ereiten eta uzta jasotzen. *Konturatu gabe pasatzen zaizkit orduak, ondoen nagoen momentuan joateko garaia dela konturatzen naiz. Gainera ez dut lurra bakarrik lantzen, antxoak kontserbak egitera ere hona etortzen naiz.*

Nicolas Tamayo ere egunero joaten da baratzera. Denbora-pasa bezala hartzen dute askok, erretiroan zerbait egitearren. Baratza lantzean eta etxera jakiak eramatean, probetxuzko lana egiten ari dela-eta, pozik sentitzen da. *Hobe da baratzera etortzea egun osoa tabernatan pasatzea baino.*



“Hobe da baratzera etortzea egun osoa tabernatan pasatzea baino”

NICOLAS TAMAYO

“Industriak ikusi du handitzen ari den merkatua dela; hortaz, bertan sartu da”

IÑAKI ZALDUA

1990. urtetik du baratzera berak.

Lurrak ez dira berenak, patata zakuen truke lantzen uzten dizkie jabeak. *Ez du nahi dirurik, ni baino lehen zegoenak ere 100 kilo patata ematen zizkion eta niri gauza bera eskatzen dīt, dio Tamayok.*

Letxuga, azalorea, brokolia eta azak dituzte orain lurrean; tipula, babak eta baratzuriak landatuko ditu datozen hilabeteetan. *Urte sasoi txarra da lurra lantzeko, hotzagatik. Negutegia duenak letxuga eta aza landatu dezake, baina neguan gauza gutxi dago egiteko.*

Lantzen dutena etxerako izaten da normalean; norberak jateko eta familiari emateko. *Norberak egindakoa etxean jatea gustura hartzen da, gogoz egindako lanaren fruituak kontsumitzen ari zara, dio Dibinak. Tamayoren ustez, gainera, saltzea ez da errentagarria, egiten den lanerako oso gutxi ordaintzen zaio nekazariari.*

Ahal duen produktu kimiko gutxien erabiltzen ditu Tamayok. Gaixotasunen bat badu landareren batek, fruiturik ez duen arte itxaroten du zerbait emateko. *Lehen patatol izeneko produktu bat erabiltzen zen –dio Lanberrik– baina galara zi egin zuten. Ahal dugun moduan egiten diegu aurre orain zomorroi; baina gutxiago edo gehiago, botika bota beharra dago.*

Salmentarako ekoizten

Denbora pasa baratzera joan eta etxerako uztarekin itzultzen direnez gain, badira eguneroko ogia barazkigintzak ematen dietenak ere.

Egunero-egunero baratzera joan, lanean aritu, eta astean behin herriko plazara jaisten diren bi nekazarirekin elkartu gara: Ibon Berasaluze eta Iñaki Zaldua.

Etxerako adina barazki landatzen ditu Ibon Berasazulek. Etxean kontsumitzeaz gain, herriko plazara ere jaisten da, azokan saltzera. *Hasieran otarrak egiten nituen, baina zailtasunak izan nituen, azokara joaten hasi nintzen, azaldu du Berasaluzek. Gustura dago azokako salmentarekin, jasotzen duen uzta saltzeko aukera baitauka.*

Oriotarren kontsumo-ohiturekin, ordea, ez dago horren kontent. *Behin, erromesak etorri zitzaizkidan, eta ikusi zuten salmentan nituen produktuak freskoak eta naturalak zirela. Nik esandako prezioan erosteko prest zeuden, balioa kalitateari eman baitzioten. Oriotarrek, ordea, beste kultura bat dutelagaineratu du: prezioari begiratzen diete, eta horkalte handia egin du Eroskik. Bost kilo patata euro batean salduz gero, guk ez daukagu zer eginik. Hemen ez dute kalitatea baloratzen.*

Dena den, barazkien kultura indartzen ari dela aitortu du. Gero eta gazte gehiagok jo du baserrira, eta guztiek, ekologikoaren aldeko apustua egin dute. Berasaluzek ere bai: *dauzkagun lurrak zoragarriak dira, dena etortzen da. Lurraren zikloak errespetatzen ditut, lurra lantzeko garaian konposta erabiltzen dut –ahalik eta gutxien–, landareak aldatzen joaten naiz –lurrari beti elementu berbera ez kentzeko eta oreka bat egoteko–, plagei era naturalean aurre egiten ahalegintzen naiz eta produktu kimikoak alboratzen.*

Horrek guztiak lan handia eskatzen du, bai fisikoa, bai



mentala: *Nahiz eta oporretara joan, ezin duzu deskonektatu. Lotuta zaude. Beti eguraldiari begira. Garai batean ez zegoen gaur egun dugun beharra oporretara joateko, beraz, orain zailagoa egiten da nekazaritzan aritzea.*

Herriko plaza kontsumo taldeen bilgune

Duela hiru urte eman zuen salmentarako pausoa Iñaki Zalduak. Kontsumo taldea sortu zuen, egun 35 lagunek osatzen dutena. *Urte hauetan guztietan batzuk utzi egin dute taldea, ez baitziren ohitzen aukeratu gabeko produktuekin moldatzen. Beste batzuei, ordea, interesa piztu eta izena eman dute.*

Egonkortasun ekonomikoa ematen diote bezero horiek, aurrera jarraitzeko babesa. Erosleen perfila ez da nolanahikoa: *bertako produktuak babesten dituzte, kontzientziatuta daude.*

Osasuntsu jan nahi duen bezeroa da Zalduarena; eta bera, produktu osasungarriak eskaini nahi dituen saltzailea: *lurra-ren egitura eta bizitza errespetatzen saiatzen naiz. Izan ere, lurrari behar dituen nutrienteak ematen badizkiozu eta zikloak errespetatzen badituzu, zure uztak ez du arazo handirik izango.*

Ekologikoaren zigiluak eskatutakoa betetzen duen arren, Zaldua ez da halakoen zale. *Industriak ikusi du handitzen ari den merkatua dela; hortaz, bertan sartu da eta zigilua lortzeko baldintzak lausotu egin dira.*

Eginda baino geldirik dagoen proiektua

Udalak bi lursail ditu Palota inguruan. Duela hamar urte-edo, erabiltzaile gutxi batzuk zeudela eta eskaera handiago zela ikusita, sail horiek, 200m²ko partzelatan zatitu genituen. Gari hartako erabiltzaileak jubilatutako ziren eta beren artean

ZENBAKIA

3

Baratzagintza mota. Hiru eratara edo helbururekin egin daiteke baratzagintza. Bata, estilo tradizionalean, kontsumo propioa-ko; bestea, salmentari begira: eta, hirugarrenik, ezagutza izateko-eskola-baratzak daude.



konpontzen joan dira, inongo arau eta kontrol zehatzik gabe. Azken urte hauetan asko gehitu dira eskaerak, baratza lantzeko lurrarenak. Kopurua gehitzeaz gain, eskatzaile mota ere aldatu egin da: langabezian dagoen jendea, gazteak, etxe-koandreak, beren barazkiak landu nahi dituzten atzerritarak... dira orain baratzean ibili nahi dutenak.

Dauden sailei probetxu gehiago atera eta banaketa orekatuago bat egiteko asmoarekin, proiektu bat jarri zen martxan Kutxa ekogunearen partaidetzarekin: *Baratze parkea* deitzen zen.

Udalaren eta Kutzaren arteko lankitzetza-akordio bat landu zen arlo ekonomikoa ere kontuan hartzen zuena. Proiektuak zenbait udal partzela herritarren eskura jartzen zituen aisialdirako baratze modura. Elementu komun batzuk planteatzen zituen zerbitzu orokorrerako, kooperatiba moduko zer bait antolatu erabiltzaileen artean. Ekogunetik aholkularitza eta laguntza, sustapena eta jarraipena egiteko proposamena zegoen.

60-65 m²ko 70 partzela proposatzen ziren proiektuan. Denera, 157.602 €ko aurrekontua zuen eta Kutzak %60 ordaintzen zuen. Guzti hau martxan jartzeko, Udalak araudia landu zuen eta, martxan jartzera zihoanean, Kutzak atzera egin zuen eta, Udalak ezin zuenez ekonomikoki proiektu osoa berak bakarrik martxan jarri, bertan behera geratu zen.

Gaiaren interesa kontuan izanik, birmoldatu egin zen proiektua, kostu baxuago batera egokitu, lurrazatitu eta banatu eta funtzionamendu soilago batekin martxan jarri. Horren aurrekontua 71.283,83 €koa da.

Udalak, inbertsiotarako dirua murriztu du, beste lehentasunak ditu eta mahai gainean geratu da gaia. Proiektua egin da dago; baina geldirik.

BARATZAK HIRU IKASTETXEETAN

Ingurumena babestearen eta, batez ere, ezagutzearen aldeko balioak sustatzeak duen garrantziaren jakitun dira gure ikastetxeak.


Gero eta gizarte hiritarrago honetan, eskola-baratzak ikasleek lurrarekiko eta gizakiaren bizitzako oinarritzko elementuekiko harremana ez galtzeko irtenbideetako bat dira.

Orioko Herri Ikastolak, Zaragueta Herri Eskolak eta Aiako Lardizabal Eskolak bat egiten dute ekimen horrekin. Hirurek dute eskola-baratza.

Lardizabalgoa da hiruretan berriena. 2014an hasi ziren eskola baratzarekin lanean, Udalak utzitako lurretan. Guraso laguntzaile bat dute, eta hark egiten ditu prestaketa eta zainketa lanak. Lehen Hezkuntzako haurrak, irakasle baten laguntzaz, baratzean aritzen dira lanean.

Urtebete egin du ikastolako baratzak, 2013ko irailean jarri baitzen martxan. HH eta LHko ikasleek kudeatzen dute, eta taldeetan egiten dute lan, jarduerak txandakatuz eta informazioa trukatzuz.

Zaraguetako baratza 2010ean sortu zen. Gure inguruan aitzindaria izateaz gain, eredugarria ere bada. Lau urtetako esperientzia aberatsa eta emankorra izan da haurrentzat, baita laguntzen aritu diren gurasoentzat ere. Hiru ikastetxeek eskola-baratzaren alde egin dute, neza-karitzaren ezagutza izan dezaten egungo haurrek.



Lau egun, hamaika jarduera

Abenduaren 5ean hasi ziren sanikolasak, deiadarrarekin. Geroztik musikak blaitu zuen Orio: abesbatza, trikia, DJak, elektrotxaranga, kontzertuak... Musikak girotu ditu lau egunetan egin diren hamaika ekimenak.



Haur, gazte eta heldu; festa helburu

Arrantzale zapia lepoan jantzita, urte bat oraindik betetzeko, festetan murgildu ziren oriotar txikienak. Haurrek festak sor ditzaketela eta dituztela aldarrikatu zuten. Nerabeek hamaika ekintzatan hartu zuten parte, baita helduek ere. Festak biziberritu zituzten; haur, gazte zein heldu, guztiek parte hartu dezaketen festak antolatuta.



Eraberritzen, indarberritzen

Herri baten osasuna nolako den neurtzeko modurik onena festek eskaintzen digute, elkarrekin gozatuz eta bat eginez. Bil gaitezen! ohiukatu zuten hainbat herritarrek, eta horixe egin zuten, elkartu.

Ondo pasa, elkar ezagutu, arduraz jokatu, kezken gainetik giro onean sortzen den alaitasunaz kutsatu, maitasuna egin, maitatu, artistak ikusi eta entzun, gure haurrak gozatzen ikusi, jan, edan eta dantza egin nahi zuen talde bat; jaia egin nahi zuen koadrila. Bakoitzaren osagaiak eltze handi batean bildu, eta, ondo nahastu ondoren, festa goxo-goxoak prestatu zituzten.

Hotzari aurre egin eta herritar guztiak berotzea lortu zuen talde honek. Euritan dantzan aritzea euripean dantza egitea. Eguzkia *ateratzen* zenetik, eguzkia sartu arte kalean gora eta behera ibiltzea. Goiztiarrak direnentzat, gaupaseroentzat edo gau txorientzat; edonoiz zegoen festa. Haur, gazte eta helduentzat, edonork egin zezakeen festa. Edonork, edonoiz.

Bide berri batetik abiatu zen lagun talde hau, parte hartzea indartu nahiak bultzatuta. Talde irekia da, herritar guztientzat festa-giroa goxatu nahi duena. Beraz, ongietorria izango da, hala nahi duen oro. Eta hori sumatu dute faltan, eskua luzatuko zieten herritarrek. Hortaz, ez ahaztu ateak zabal-zabalik dituztela. Guztiok bizi ditzagun jaiak, atea jo gabe ere sartu barrura, guztiok -batera errazago eragiten baita urte osoko ekintzetan.

Beldurrezko astea

Neskak esanekoak eta zintzoak dira. Mutilak, berriz, ausartak eta indartsuak. Batzuk salbatzaile izateko, besteak noiz nork salbatuko zain egoteko jaiotzen ote gara?



Garbiñe Manterola

Zazpi mikroistorio bildu ditut denbora gutxian: Ostirala, sanikolasen bezpera. Adarjotzaileak lanean hasi aurretik parean dudana hamaika urteko neska kozkorra galdezka hasi zait. *Bakarrik bizi zara? Eta ez al dizu beldurrik ematen?* Eta nik: *Zeri beldurra? Zer-gatik?* Begiak handituta jarraitu du niri begira.

Larunbata, San Nikolas eguna. Goizeko ordu txikitan etxerako bidean naiz; bizikletaz, hotzak amorratzen. Etxerako berrehun metro eskas falta zaizkidanean, bat-batean, rotweiler bat atera zait bidera. Inguruan jaberik ez eta zakur puska niri begira-begira paratu da, errepide erdian. Spageti-western bateko duelua. Bufanda eta txapelaren erditik ozta-ozta ikusiko ditu txakurrak nire begiak. Bazterrera joan eta alde egin du. Ia jo dut, bete-betea, garajeko atea.

Igandea, San Nikolas bigarrena. Gurasoenera iritsi eta arrapaladan hasi naiz bezperakoa kontatzen. Parean bi begi handi. Nere kontakizuna bukatu eta: *Berriz!* Grazia egin dio ipuinak ilobari. Txakur beltz eta mutur zikinaren, eta ziklistabeldurtiaren ipuina zortzi bat bider kontatu diot, postrea iristerako. Noiz, nork eraikitzen ditu gure beldurrak?

Astelehena, festen akabera. Lagunakjo eta ma utzi nau. Bere lagunartean bada bortxatua izan den neska bat, bada bortxaketa saiakera jasan duen bigarren bat ere. Hemen, Euskal Herri honetan. Baina, hemen ez dira horrelakoak gertatzen, ala?

Asteartea, biharamun handia. Susaeta editorialetik astebeteren buruan jaso dut bidalitako mezuaren erantzuna. Jende dezentek egin bezala, nik ere bidali nien hiru liburu — *Neskentzako errezeta errazak*, *Neskentzako ipuinaketa* *Mutilentzako ipuinak* — merkatutik erretiratzeko eskaera. Editorearen arabera, ama eta amona direnek erosten omen dituzte printzesen ipuin-sortak, beraien alaba eta biloba neskentzat. Esan gabe doa, neskak esanekoak eta zintzoak dira. Mutilak, berriz, ausartak eta indartsuak. Batzuk salbatzaile izateko, besteak noiz nork salbatuko zain egoteko jaiotzen ote gara?

Asteazkena. Ondarroako kaleetan dagoen mural baten erretratua Interneten: *Beste behin guapa diar eñ eta ostikari emongotzut ahuan*. Osteguna. Sanikolasak bukatu eta jolas katalogoak postontzian. Nazka, kezka, izua. Beldurrezkoa, astea bakarrik balitz...

Maidar Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orío · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA



Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaia S.L.



Autobus litera eta
 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
 Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio
 943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

auto Azkue



Tf: 943 130 438


auto Azkue

KOLON TXIKI
enlartegia jateketa



Herriko Enparantza, 4
 ORIO
 Tel. 943 83 00 44

GURPIL



Baxoalde 2 - 3 - 20810 Orio (Gipuzkoa)

URAITZ
liburindegia jantzi-erakargarriak



Endaia, 3 Tf: 943 83 18 97

BODEGAS Gailur

01307 BAÑOS de EBRO
 Tel/Fax 945 60 91 58
 www.bodegasgailur.com
 Arabar Enrioka

ZUDUGARAI



Gelariako Txakolina

Tel. 943 83 03 86
 Fax 943 83 59 52
 bakolizudugarai@euskalnet.net
 www.bakolizudugarai.com

ANORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA



• komertzial instalazioak • beira bikoitza
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ITSASADARRA, S. L.
 Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekaria
 finka administratzailea
 gestoria
 enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 98 itsasadarra@itsasadarra.com
 Ibai Ondo 4, behe. 20810 Orio

arkaitz taberna
 orio

- Ogitaratekoak - Pintxoak
 - Plater konbinatuak
 - Karta

Terraza ederrarekin
 Giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

Orioko Herri Ikastola



Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8
 TEL: 943 83 47 04
 FAX: 943 13 09 38
 orio@ikastola.net
 www.oriokoikastola.net

Zaragueta Herri Eskola orio



telefonoa: 943 89 40 52
 e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

HAIZE BERRI
taberna-jateketa-kafetegia



Plater konbinatuak,
 bokatak,
 hamburgerak,
 razioak,
 eguneko menua...

eta etxera eramateko zerbitzua!

Orioko Kirodegia, Erribera 1 943 83 16 23 Astarte goiztiar irekita



Eli Lasa

Aholku merke eta optimistak

Utz ezazu telefonoa poltsaren barrenean eta soinurik gabe, aurrean daukagunari begietara begiratu eta entzuteko.

Egunkariei begiratu bat emanez, gorbatadun lapur ugari eta ia egunero beste berri bat zerrendako eta bukatzeko itxurarik gabe –zein nazkatuta gauden!–; futboleko afizionatu izeneko astokilo bortitzak elkarri joka norbait hil duten arte; politikoak dagoeneko hasita *Olentzero* lanetan hau eta bestea promestuz eta beste alderdietakoak kritikatu –traineru batean jarriko bagenu, gauza izango ote lirateke denak alde batera arraunen egiteko edo bira eta bira ibiliko ziren ziba bat bezala inora heldu gabe, hainbeste aldiz ikusten dugun bezala?– krisia bukaezina eta bere ondorio lazgarriak egunero islatuta... Desanimatzeko modukoa!

Ez ote dago zerbait onik? Mmm, ba bai, badaude gauza batzuk. Adibidez, langabezia zertxobait jaitsi da; CAFek beste kontratu haundi bat sinatu du tren berriak egiteko –zer nahi duzue esatea, niri poza ematen dit horrelakoak irakurtzea tarteka; eta inoiz erbestean tokatu izan zaidanean metro edo trenen batean sartzea eta CAF izena irakurtzea, irribarre txiki bat ateratzen zait–.

Janari bilketa ere egin da iaz bezala eta berriro ere frogatu da bihotz onekoak garela. Antolaketa lan ikaragarria, adin guztietako boluntarioak denak helburu berarekin eta jende ahal zuen neurrian bere ekarpena eginez, zirrargarria.

Eguberriak iristear daude. Egoera onena ez bada ere iradokizun batzuk eman nahi dizkizuet, agian norbaiti balioko diotelakoan.

Utz ezazue telefonoa poltsaren barrenean eta soinurik gabe aurrean daukagunari begietara begiratu eta entzuteko –ama, zuk ez, ahaztuta edo hala komenita? Horixe egiten duzu eta!–.

Eta bakarrik bazaudete eta irakurtzea gustuko baduzue, jakin ezazue liburutegiak dohainik direla eta orain gainera e-liburutegia ere badela, ehunaka liburu, disko eta aldizkari eskura dituzula. Eta taldean egiteko ekintzen garaia ere izan daiteke: mahai jokoak, puzzle erraldoi bat koadrilan egitea, ibiltzea joatea –mendira, Orioko barrara edo Getariako bidera–, aspaldian idatzi ez duzun postal bat bidaltzea –txorrada dela? Eta zuk jasoko bazenu zer?–.

Txikiak badira ere, ilusiorako arrazoiak aurkitzeko gauza izan gaitezten. Eguberri On!

ROSANA ARRUTI
ARGAZKI ESTUDIOA
Aita Lertxundi, 26
Telf.: 943 835845
fotorosanaarruti@gmail.com

**GABON EGUNEAN
EGUN OSOA IREKITA**

ABENDUAK 24EAN
ETORRI BAZERRITAREZ JANTZITA ESTUDIORA
ARGAZKI BAT ATERATZERA!!!

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak
fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

“Opari gehiegi jasotzen dituzte haur gehienek”

Olentzero eta Mari Domingi

Jentila eta arlotea; ikazkina eta laguntzailea

Abenduko hilaren 24ean, Belengo estalpe zokoan Jesus jaio zen egunean, Olentzero eta Mari Domingi Oriora etorriko dira laugarrenez. Gabon gaua magia beteko dute.

OLATZ ARTOLA

Eskutitzetan idatzitako helbideak dira abenduaren 24ean Olentzero eta Mari Domingirentzat ipar-orratz. Etxez etxe gutunetan eskatutakoa zuhaitz azpian uztera. Bezperatan, lanez lepo dabilta, zakua ikatzez eta opariz betetzen. Oparia urtean zehar txintxoia izan denarentzat; eta, ikatza, gaizki portatu denarentzat.

Gabonak ate joka daude. Hasi zaizkizue eskutitzak iristen?

Olentzero: Dagoeneko hasi zaizkigu gutunak pilatzen. Zabaldu ditugu asko eta asko, eta ikusi dugu eskatutako ia guztia materiala dela. Sentimenduei eta bihotzeko kontuei dagokien eskaerak ez zaizkigu apenas iritsi.

Mari Domingi: Horrelako gehiago jaso nahiko genituzke, egia esan.

Eskaerak gero eta materialistagoak dira?


Mari Domingi: Zoritzarrez, bai. Kontsumoak indar handia hartu du gure kaleetan.

Olentzero: Gure festan horrekin hautsi nahi dugu. Beste itxura bateko festa egingo dugu Orion, xumeagoa.

Mari Domingi: Jostailu asko edukitzeak ez zaitu zoriontsuago egingo; zoriontasuna beste faktore batzuen baitan dago. Horiek indartu behar ditugu.

Zuen esentzian aipatzen duzuen xumetasun hori badago.

Olentzero: Gure helburua hori da. Herrira joan eta herritik egitea festa. Herritarrak festaren parte sentitzea.



Olentzero eta Mari Domingi . K. OLARIAGA

Bizarzuri eta hiru erregeekin alderatuta, gutun gutxiago jasotzen dituzue?

Olentzero: Gero eta gehiago bidaltzen dizkigute. Dena den, gure helburua ez da gainontzekoei konpetentzia egitea.

Gure eredu bestelakoa da; gu, euskaldunak gara.

Mari Domingi: Kabalgatak ere jarrai dezala haurrei poztasuna eta ilusioa zabaltzen. Biontzako dago tokia, hiru erregeentzako eta guretzako.

Olentzero: Egia esan, Arkupek ekarri zigun plazara. Irudi egonkorra ematen genuen Oriora etorri ginen hasiera garaietan; umeak gugana etortzen ziren, argazkiak ateratzen genituen, eta kitto. Argazkirako geudela zirudien.

Mari Domingi: Baina magikoak bagara, magia puntu bat eman nahi izan diogu gure etorrerari.

Zer lan du Olentzerok eta zer Mari Domingik?

Olentzero: ni, ofizioz, ikazkina naiz. Ikatza egiten igarotzen dut urtea. Kristo aurreko kixmiaren –jentilok jesukristori ematen diogun izena da– eta kristautasunaren arteko pertsona naiz. Ni izan nintzen lehendabizikoa esaten Jesus agertu zela.

Mari Domingi: Olentzeroren laguntzailea naiz. Klean bizi nintzen eta Olentzerok berekin hartu ninduen. Berak etxea eta babes eman zidan; nik, ordainetan, lagundu egiten diot, Ikazkin lanetan urtean zehar eta opariekin Gabonetan.



“Sentimenduei dagoz-
kien eskaerak
ez zaizkigu apenas iritsi.
Horrelako gehiago jaso
nahiko genituzke”

Eskertu egiten duzue bere laguntza, ezta Olentzero?

Olentzero: Jakina. Bestela ez nuke lana aurrera aterako.

Abenduaren 24an etortzen zarete, opariak banatzera.

Gainontzeko egunak ikatza egiten igarotzen dituzue?

Olentzero: Mendia zaintzen dugu eta jendea ea ondo portatzen den kontrolatzen dugu. Erlatiboa da zintzo portatzearena, baina gu ahalik eta objektiboen epaitzen ahalegintzen gara.

Mari Domingi: Urtean zehar Oriora agertzen ez garen arren, urte guztian zehar begiak Orion jarrita izaten ditugu. Orion eta Euskal Herri osoan. Ez du balio azken bi asteetan zintzo portatzeak, egunero izan behar dugu jarrera egokia.

Opariak zergatik dira horren garrantzitsuak?

Olentzero: *Zerekarriko ote dit?* Galdera horrek dakarren ilusio eta sorpresa oso polita da. Denoi gustatzen zaigu opariak jasotzea.

Mari Domingi: Halaber, askotan, sorpresa horrekin gozatu ordez eskakizun zehatz bat egiten dugu...

Eta ikatza, zergatik da opari txarra?

Olentzero: Ikazkina naizenez, ikatza txarra ez dela irizten diot, izan ere, gauza on asko ditu ikatzak: beroa ematen digu, janaria berotzen du... hau da, jakia ematen digu.

Mari Domingi: Baina, egia da, gauza txar baten moduan irudikatu dugula. Gaizki portatzen denari, ikatza.

Opariak banatzerako momentuan, zein dira zuen lehentasunak?

Olentzero: Gehiegi jasotzen dute denek, hori jakina da. Guk hanka sartzen dugu, kantitateari dagokionez hausnarketak egiten hasi beharko genuke.

Gabonak familian pasatzea garrantzitsua da?

Olentzero: Familia elkartzea beti da garrantzitsua; bai Gabonetan, bai bestela. Eguberriena data jakina da, neguko solstizioa ari gara ospatzen. Honek aitzakia ematen digu elkarteko; izan ere, bestela, oporretan, bakoitzak bere bidea bilatzen du.

Mari Domingi: Ona eta gozoa da familiarekin elkartzea.

Zuek ere familian etortzen zarete Oriora.

Olentzero: Gurekin batera etortzen dira Mari, Basajaun, joldunak, galtzagorriak, adar-jotzaileak, sorginak...

Erdi ahaztuta genituen pertsonaiak ziren. Berekin kontaktuan jarri nintzen, eta laguntza eskatu nien. Guztiek baiezkoa eman zidaten, inolako trabarik gabe.

Mari Domingi: Bide batez, Orioko kaleetan ezezagunak ziren pertsonaiak ezagutarazi nahi genituen.

Olentzero: Mari Anbototik etortzen da, urrutitik. Honezkerobidean izango da.

Mari Domingi: Bidelagunak izango ditu, beraz, asko dira jada honuntz datozenak.

Ttuntturroen deiarekin jakingo dugu iristear daudela, ezta?

Olentzero: Herriari abisua ematen die, adar-jotzaileekin batera.

Mari Domingi: Lehenak iristen, ohi bezala, galtzagorriak izango dira. Arratsaldeko 18:00etan ailegatuko dira plazara eta guretzat diren gutunak jasotzen ibiliko dira. Denbora guztian lanean egon behar dute, mugitzen, bestela desegin egiten dira. Hortaz, gutun asko eman, lan asko izan dezaten.

Olentzero: Gogoan izan ez direla gauza materialak bakarrik eskatu behar, intentzioak, gogoak, ametsak, asmoak.... ere eskatu behar direla.

Mari Domingi: Hori da, ilusioak gutun-azaletan gorde eta gu horiek oparitzen ahaleginduko gara.

Sorginak gaiztotasunarekin lotu izan ditugu.

Olentzero: San Joan gauean eta sorginak ohiuka ageri dira, nahiko era bortitzean espresatzen sentitzen dutena. Baina, oro har, sorginak ez dira gaiztoak.

Mari Domingi: Sorginek jendeari laguntzen diete. Udazkenean belarrak jasotzen ibiltzen dira, neguan ukenduak eta botikak egiteko. Sor daitezken gaixotasunak sendatzeko egiten dituzte sendagaiak.

Laugarren aldia da Oriora familian etortzen zaretena.

Mari Domingi: Lehen ere hemen geunden, baina ez geunden bistan.


Olentzero: Atera egin ginen eta oso gustura sentitu garenez, ez diogu etortzeari utzi. Urtetik urtera hobeto sentitzen gara, politagoa izaten da. Nahiz eta kontatzen dugun istorioa jada ez den ezezaguna, eta sorpresaren efektua galdu dugun, jendea zain izaten dugu.

Mari Domingi: Gustura etortzen gara, eta etortzen jarraitze-ko asmoa daukagu. Ondo hartu gaitu Orioko herriak, harrera ona izan dugu. Horregatik jarraitzen dugu etortzen.

“Urtetik urtera hobeto sentitzen gara. Sorpresaren efektua galdu dugun arren, jendea zain egoten da.”



Galtzagorriek umeen gutunak jasotzen dituzte . KARKARA



Bi errekor bi egunetan

24 ordutan bi errekor saiakera zituen Idoia Etxeberriak. Lehendabizikoa Orion, San Nikolas festen deia darrean. Hiru minutuko txandari jasoaldia egitea lortu zuen 113 kiloko harri kubikoarekin. Bigarren saiakera Mendaron, abenduaren 6an. Bost minutuko denboran 56 jasoaldi egin zituen 100 kiloko harri zilindriko berriarekin. Bi saiakera eta bi lorpen, hortaz, Idoia Etxeberriak bi egunetan.

“

Nik bakarrikzeta guztiak lehenengo pertsona egiten ditut, errazagoa baita jendearengana iristea norberari gertatu zaion zerbait kontatuz. Hori egiaztatu nuen Goiko Kaleko jaietan.”

Aitor Arregi, bakarrikzeta kontalaria, Urola Kostako hitza, azaroaren 26an.

“Dantzariak daukagun irudi klasiko horretan, mugimenduaz interpretatu izan ohi ditu sentimenduak. Dantzari garaikideak mugimenduaz gain, irudia, soinua eta testua erabili ditzake.”

Eneko Balerdi, dantzaria, Arratsean, Euskadi Irratia, azaroaren 21ean.

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, odolki,
txekorria, txorizo, kroketak...

KAXAIO
PLADURRA ETA IGELTSUA

Konponketa eta berrikuntza lanak
pladurra eta igeltsuarekin

4josemaria@gmail.com
656 777 574

MENDIZABAL
AROTEGIA
*Neurriko armairuak
eta egurlanak*

943 831 175 Altzerri bidea
645 708 491 Beti-Alai etxea
mendi@arotegi.net 20810 Aia-Orio

Karkara laguntzaile izan nahi duzula?

Bete zure datuekin eta ekarri Kultur Etxera. Urtean 36 euroko laguntza eman behar da.



Izen deiturak
Helbidea
Herria
Posta kodea
Telefonia
Emaila
Kontu korrontea

ENTITATEA	SUKURTSALA	KD	KONTU ZENBAKIA						



IGLESIAS SARRAILAGILEAK

**24 ORDUKO
ZERBITZUA**

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
 iglesiasscrajaeros@yahoo.es
20810 ORIO

- ATEAK IREKITZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALGUKIEN ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA

LEUNDA OKINGEDIA



ORDUTEGIA

ASTELEKINETIK - LARUNBATERA 16ANDE ETA JAI-EGUNETAN

tel/fax: **943 89 00 69**
 Bizkaia kalea, 4. 20.800 ZARAUTZ



ITURGINTZA - BEROGINTZA - GASA

URBIDE o.k.

ITURGINTZA_BEROGINTZA
 GASA_BAINU ERAKUSKETA

Presupuestak konpromisorik gabe

HAUR ETA HELDUENTZAKO JANTZIAK



ROSA

GARBINE ARRILLAGA
 ARITZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 19 43
 www.facebook.com/wrosadendaorio

10% DESKONTUA FAMILIA UGARIENTZAT

*Lizaso
dekorazioa*



Tf:
943 83 07 84

Faxa:
943 24 87 15

Eusko Gudari, 48

Tf:
943 83 07 84

Faxa:
943 24 87 15



karkara.eus


Eskaintza berria Eskaria

LURDES

ARRAINDEGIA

Eusko Gudari, 4
Tel. 943 83 00 24





Zarautz

Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa

> Hileta zerbitzu orokorrak

> Zerbitzu iraunkorra



Harrespil

Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

Abenduko sarituak

Alaitz Aizpurua Albizu

Olariaga aholkularitza

Pako Imaz Zuazberro

Garmendia aholkularitza

30€

Arkupeko dendetan gastatzeko





Orioko udaletxean bi bandera altxata. KARKARA

Masaiak Kenian eta Tanzanian

Oroimenaren kutxa

B Zarautzen alkate oriotarra dute, eta Getarian, aiarra. Globalizazioaren gauzak izango dira. Getariko alkate aiarra hizlari ona da: jendaurrean hitz egiteko ez du papera maite, nahiago du paperik gabe jardun, buruan momentuan duena ematea. Bertsolariaren semea da: Nika Lertxundi.

2012ko abenduaren 23an ekitaldi politikoa izan zen Getariko frontoian. Hango Udalak arazo politikoa zuen Espainiako Gobernuarekin, Gobernu horrek Euskadin duen ordezkari Urkijo jaunaren bidez sortua. Festetan-edo, udaletxeko balkoian ikurrina jarri zuten, eta ikurrina *besterik ez*. *Urki-jok ez zuen denbora gehiegi behar izan Udalarigogorazteko hori ez zela legala eta, banderarik jartzekotan, Espainiako ere jarri behar zutela.*

Getariarren desadostasuna adierazteko antolatua zen frontoiko ekitaldia. Dantzariak, mugimendu arinetan, eskuan zeuzkaten zapi txuri, gorri eta berdeekin ikurrina irudikatu ondoren, alkateak hartu zuen hitza eta, behin batean, benetan gertatu zitzaiona kontatu zigun han ginenoi. Berari gertatua zen.

Ezkonberritan, andrea eta biak Afrika aldera joan ziren, ez-

tei bidaian. Kenia eta Tanzania bisitatu zituzten, Madrildik abioiz joanda, talde baten barruan. Taldean ba omen ziren-Madrilgoak eta Bartzelona aldekoak-eta. Gida batek azaldu zien lurralde haietan badela herri bat, nazio bat, masaiena, beren hizkuntza eta beren kultura propioa dutenak. Kontatu zien, baita ere, nola XVIII. eta XIX. mendeetako europarren kolonialismo basatiaren ondorioz sortu ziren bi estatu haiek: Kenia eta Tanzania; eta nola Kenia ingelesten kolonia moduan geratu zen, eta Tanzania alemanen kolonia gisa, eta nola ingelesek eta alemanek lerro zuzen bat marraztu zuten mapan, bi estatu sortu berriak bereizteko, eta nola, zoritxarrez, marra hura ez zetorren bat masai herriaren lurraldearekin, eta nola masaien herria bi zatitan geratu zen, batzuk Kenian eta besteak Tanzanian.

Hori dena entzunda, Madrilgo emakume bat ausartu omen zen: *Ez dago eskubiderik horretarako*, Getariko alkate izatera iritsiko zen aiarrak ez zuen aukera galdu: *Pozten naiz hori entzuteaz, guri beste horrenbeste gertatzen baitzaigu, eta Nola, nori gertatzen zaio hori?* eta Guri, euskaldunoi, *batzuk espainiarren eskuetan eta besteak frantsesenean, eta Bai, zera, hori desberdina da eta...* Horrela joan omen ziren egun hartakoak, Madrilgo emakumearen eta Aiako gazte ezkonberriaren artean.

Ezkon bidaiaiko kontu haiek ekarri zizkigun Getariko alkateak Gabon bezperako egun hartako diskurtso paperik gabekoan, dotore asko. Nik aldamenen nuen lagun getariarrari galdetu nion: *Hi, eta zertan da udaletxeko banderarena, orain ere ikurrina bakarrik zegok-eta jarrita. A, hori erraz konpondu ditek, espainola ere jarrita zegok, baina atzeko karkaran, han, inor ibiltzen ez den kaletxoan. Madrilgo emakumearekin bezala, Espainiako Gobernuaren delegatuarekikoan ere onik ateratzen alkatea, aldi hartan behintzat.*

Haur, nerabe eta gazteen aisialdia



Ametsa gaztelekua. KARKARA

Aisialdian aterpean, babesean eta lagunartean egoteko espazioak dira ludoteka, gaztelekua eta gaztetxea; haur, nerabe eta gazteentzat, hurrenez hurren. Herritarren eskakizuna ziren; epe laburrera, errealitatea izango dira.

Ludoteka, laster

Goiko Kanean egin ziren etxebizitzetako bi, Udalarik tokatu zitzaizkion. Etxe-

bizitza horiek saltzea eta dirua ludotekarentzat erabiltzea onartu da aurten, EAJ eta Orainen aldeko botoekin.

Orain, hiru alderdiak dabilta lanean. Bakoitzak proiektu-proposamen bat garatu du, eta, helburua, guztienak alderatu eta proiektu bateratu bat osatzeta da. Ondoren, proiektua herriari aurkeztuko zaio, iritzia eman eta ekarpenak egin ditzan.

Bildu: Lehenbizi proiektua

Gaur arte inbertsioaz hitz egin da, eraikinez. Bilduk lehen esan bezala, aurreko lana da proiektua zehaztea. Txurru-musikik landu behar du, hamabost urteko lanak eta herriaren nahiz gaiaren ezagutzak ez du zalantzan jartzen. Har dezagun denbora ludotekaren proiektu pedagogikoa mimatzeko. Bestalde, posible izango al da, gastu guztiak ordaintzeko zirrikiturik izango al du udal aurrekontuak?

Orain: Hiru eremu eta helburu bat

Familiak eta eskolak garrantzitsuak dira sozializazioan baina ezinbestekoa izaten da aisialdian, kanean eta lagunartean, jasotzen den jakintza. Haurtzarora ludotekan, nerabezarora gaztelekuan eta gaztarora gaztetxean ahalik eta sendo nahiz natural izan horrela izango da helduarora. Ludoteka sortzen ari gara, gaztelekuak bere martxa du eta gaztetxea antolatuta behar da. Horretan gaude.

Talai-Mendiren lokalaren azpian egongo da ludoteka. Udaleko arkitektoa jada ari da espazioarekin lanean, lokalari ahalik eta errentagarritasun handiena ateratzeko asmotan.

Gaztelekuan adin tarte zabalegia

2008an ireki zituen ateak Ametsa Gaztelekuak. Bide emankorra izan da orduetik hona egindakoa. 10-16 urte bitarteko gazteak elkartzen dira. Gazteenak, gehienbat, astean zehar; eta, zaharrenek, asteburutan.

Espazioa mugatua geratzen da hainbat adinetako haurrak elkartu ezker, bakoitzaren interesak ezberdinak baitira. Arazo hori salbu, Gaztelekua erritmo onean dabil, bizi-bizi. Irteeretara ere ume mordoa joaten da, arrakasta handia izaten dute.

Urte guztiko lana burutzeko 37.000 euroko kontratua dute sinatuta Udalarerekin.

Gaztetxea, hitzarmenaren bila

2010ean okupatu zen Etxeluze izeneko eraikina, eta 2013an erosi zuen udalak gaztetxe erabilera emateko. Hitzarmena sinatzeko bidean daude orain, bi aldeek -gaztetxearen eta udalaren- betebeharrak finkatzeko eta gaztetxearen beharrak egin behar diren konponketa lanak finkatu eta aurrera eramateko.

EAJ: Proiektuaren garrantzia

Orioko Udala -EAJk Orain taldearekin adostutako ekimen bati esker- Ludoteka proiektu bat ari da garatzen. Ekintza honek, gaztelekuak duen dinamikei batuta, bultzada handia emango dio herriko haurtxoei eta gaztetxoei aisialdi hezitzaile bat eraikitzerako bideari. Egoki bideratutako dirua dela iruditzen zaigu. Bilduk, aldiz, gaztetxearen proiektuan inbertitutako diruaz berdina esan genezake?

■ LARDIZABAL HERRI ESKOLA

Herriko aiton-amonak eskolan



Euskararen Egunean, Belen eta Gemma Aurizenea, Joxe Mari Lertxundi eta Joxe Mari Aldai herriko aiona-amonak gure eskolara etorri ziren, ume-garaiko Aiari buruz hitz egiteko. Ia ordu-bete pasa genuen haien kontuak entzuten, baina ez ginen aspertu. Saioa interesgarria izan zen; orain beren gazte garaiko ohiturez, harremanez, hizkuntzaz eta kontuez gehiago dakigu. Bukaeran Joxe Mari Lertxundik bertso batzuk kantatu zizkigun.

■ ZARAGUETA HERRI ESKOLA

Azaroan, 2.ziklokoak Lurraskan



2.ziklokoak Lurraskan izan gara, Urdaibako natur-gunearen muturrean, Ajangiz herrian. Paraje ikusgarri batean kokatuta dago eta bertan parkea, futbolinak... genituen atsedendietan ibiltzeko. Egunean zehar tailerrak egin genituen eta zaldi gainean trosta-trostan ere ibili ginen. Etxabereez gain, orkatx txiki bat eta Txistu izeneko llama ezagutu genituen. Gauean, diskotekaren ondoren, lotara denok elkarrekin, linterna eta guzti. A ze plana!

■ ORIOKO HERRI IKASTOLA

Lau kartoi eta bi oihal puska!



Hau da hau kartoi kaxa pila! Mundialak eskulanetarako! Dendak utzitako materiala berrerabili dugu ikastola apaintzeko. Mantalak jantzi, kaxei begira-begira jarri, irudimenari hegoak astintzen utzi, eta ideiak pixkanaka-pixkanaka hasi dira agertzen: *Honela jarrita, arkume baten antza din! Gainean zapi luze bat jartzen badiogu, Meltxor emango dik!* Talde txikitik gogoz lan eginda, sekulako eskulturak osatu ditugu. Urte berri on, herritar guztioi!



Uxue Albeniz
Nahia Eizmendi
Nerea Urriza

Datorren urtera begira

Datorren urtean Aiako eskola utzi eta DBHra joan beharko dudarikasle bat naiz. Badakit oraindik abenduan gaudela baina hasia naiz, jada, datorren urtean pentsatzen.

Alde batetik, urduri nago ez baitakit zer topatuko dudan. Badakit azterketa gehiago egin beharko ditudala, irakasle asko eta denak berriak izango ditudala, arlo gehiago izango ditudala, goizago esnatu beharko dudala eta gelako betiko lagunak bananduko gaituztela. Horrek ematen dit amorrazio handiena.

Beste aldetik, lagun berriak ezagutu eta egingo ditut. Gainera ligatzeko aukera handiagoa izango dut eta esperientzia berriak izango ditut. Telefono mugikorra ere erosiko didate eta amorratzen ari naiz. Izan ere, gu baino zaharragoak diren ikasle gehienei DBHn erosten dizkiete mugikorrak.

Beraz, aipatu ditudan alde onak eta txarrak alderatuta DBHra joateko gogo handirik ez badaukat ere, ilusioz joango naiz...

Gelako betiko lagunak bananduko gaituzte. Horrek ematen dit amorrazio handiena.



sinergia

FISIOTERAPIA

IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM
TF.: 943 130 577 685 718 595

LESIOAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAITIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)



kortaberri.arotza@hotmail.com

665 70 33 47

Carmen eta Txomin

ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47



Tipi-tapa, tipi-tapa, kaiuara
bokata ederrak jatera

Anibarko portua 35, behea
Tf.: 943 840 060

Katu Horia
albaitarietza klinika

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larrialdia
688 89 11 29

www.katuhoria.com



ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46



Eusko Gudari, 18 Telf: 943 83 00 07



eusko gudariak 35 :: ORIO

943 53 64 94 :: 697 23 86 51



PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TELF - 943. 572083
FAX - 943. 571190
i.asenio@hotmail.es

INES ASENJO
IBAI ONDO 13
20810 ORIO



MARIJO

Neska eta
mutilentzat

Eusko Gudari, 8-bajo
Tel. 943 13 47 29
Orio



liburuko azalaren marrazkia.

Lurretik lurrera, Galdos anaien liburuxka

Kritika Lurretik lurrera

Liburua, Josu eta Jon Galdos anaiak idatzitako liburua da Lurretik Lurrera.

Josu Galdos oiartzuar oriotartuak anaia Jonekin jokatu du azken urteotan Orioko pala-txapelketa. Oraingoan pilota alde batera utzi eta eskuak beste zeregin batean erabili dituzte bi anaiok: liburu bat plazaratu dute elkarrekin.

Josuk lehendik ere emanak ditu bi liburu: *Zuhaitz zaharrenaren heriotza* eta *Ipuhi-nak*. Poeta da eta olerkia du maite. Jon anaia, berriz, marrazkilaria. Bien artean atondu dute oraingo liburuxka: *Lurretik lurrera*, olerkiz eta marrazkiz ondo jantzitako lana.

Bi anaiok kosmogonia bat eskaini digute, naturaren inguruko poema bilduman, Jonek Josuren hitzak irudi eta kolorez jantziz. Milaka urte dituen natura ulertzeko abiapuntu dira Galdos anaien olerki eta irudiak.

Jonek urteak daramatza koadroak margotzen, eta haiek hobeto uler daitezen azalpenak idazten. Josuk, poemak sortzen. Biek ere gauza bera adierazi nahian: milaka urteko jakinduria, naturarekin harreman estua duena, maiz sumatu ere egiten ez dugun arren, arnasten dugun haizea bezala gure inguruan dagoena. Mundua ulertzeko ikuspuntu horrek bultzatzen ditu idaztera eta margotzera.

Joseba Aurkenerena Urruñako idazlearen hitzak dira hauek: *Liburu ederra, zinez adierazkorra, barne-barnean sartzen den horietakoa*. Nireak, beste hauek: *Ikasle edo seme-alabengan naturarentzako maitasuna txertatu nahi duenak eta, bidez batez, hizkuntzarentzako miresmena, opari polita topatuko du galdostarren liburuan*.

IÑAKI ITURAIN



Gizartea

Zaharren babeslekukoek urteko batzarra egingo dute

2015a hastearekin batera, urteko batzarra egingo dute Zaharren Babeslekukoek urtarilaren 20an. Kultur Etxean egingo da batzarra; 16:30erako egin dute lehen deialdia, eta 17:00erako bigarrena. Hauek dira, besteak beste, landuko dituzten gaiak: 2014ko azken Batzar Nagusiaren akta irakurtzea eta onartzea, ekitaldi ekonomikoaren itxiera eta 2014ko balantzea, 2014ko jardueren memoria eta zuzendaritza batzordeko kideak berritzea. Bestalde, 2015eko kuotaren ordainketa urtarilaren 26tik 30era egingo da 16:00etatik 18:00etara, Zaharren Babeslekuan.

@karkara.eus/orio/1418643193939



HASI TXIOKA

Gabonetako ospakizunak gustatzen al zaizkizu?



Kultura

Munduan besteekin eta besteen pare .eus domeinuarekin

Euskara eta euskal kulturaren domeinua da .eus. Lau haizeetara hedatu nahi dute, guztion eskura jarri. Izan ere, *zabala da domeinua, internet bezain zabala, mugarik gabea*, esan zuen Josu Waliñok aurkezpenean. Euskal komunitatea interneten kokatu eta bereizten du .eusek.

KARKARAREN webgunea .eus izatera pasatu da, eta bi herrietako udalekoak Aia.eus eta Orio.eus dira orain.

Kultura

Eneko Balerdi: Durangokoa etengabeko estasia izan zen

Durangoko azokan aurkeztu zuen bere azken lana, *Txapeldun*. Irabazle baten azalean jarri da dantzaria, eta txapelduna izatea ez dela guztiz gozoa ikusi du. Sentimendu horiek eszenara eraman ditu aiarrak. *Aurpegi asko ditu txapeldunak, ez soilik garaipenaren arreta jasotzen duen pertsonarena. Momentu horietan txalotua den arren, bakarrik ere sentitzen da askotan.*

Gizartea

Zumba ikastaroa Aian

Musika dantzagarriari koreografia errazak jarri eta gorputza osasuntsu mantentzean datza Zumba. Aian, praktikatzeko aukera izango da, urtariletik aurrera, asteazken arratsaldeetan. Haur eta helduek izango dute aukera Zumba zer den ikusteko eta kirol honekin gozatzeko. Interesa duenak Kultur Etxean eman beharko du izena. Informazio gehiago nahi duenak ere Kultur Etxera jo dezake.





Herri lanak Barran aldapa egingo da

lazko neguan denboraleak bortizki jo zuen euskal kosta. Kalteak ekarri zituen Orion, larriena, barraren haustura. Zulo handi bat egin zuen. Portu Zuzendaritzari dagokio kontradikearen konponketa. Presazkoa da obra, negua baitatorkigu gainera, eta denboraleak hasi baino lehen amaitzea komeni da. Uztailen bidali zuten proiektua udaletxera Portu Zuzendaritzakoek. Proiektuak barraren itxura aldatzen zuen eta erabilera mugatu, izan ere, aurkeztutako proiektuan barra bi metro altutu eta lau zabaldu nahi zen. Orioko Udala ez zegoen ados Portu Zuzendaritzak hartu nahi zituen neurriekin. Udalaren asmoa ez zen barra eraldatzea, berregitea baizik.

@karkara.eus/orio/1418049123249



Gizartea 2 tona ez dira nahikoa

Urtero abiatzen da produktuz betetako karabana Sahararuntz. Iaz 120 kaxa osatu ziren Orion bildutako materialarekin, 2 tona inguru. Aurten, otsailean irtengo da karabana eta lehengo urtean bezain beste material biltzea dute helburu. Horretarako, martxan jarri dute jada bilketa.

Hiru tokitan egingo da bilketa: dendetan, plazan eta ikastetxeetan. Loidi, Spar Dorronsoro, Dia, Coviran, Leunda eta Eroskin bilduko dira, azaldu du Jokin Urangak eta gaineratu du: dendetako bilketa jada hasi da, abenduaren 15ean hasi eta urtarrilaren 15ean amaituko da. Hilabeteko epea egongo da produktuak emateko.

@karkara.eus/aiaorio/1418643766596

Olentzero, Mari Domingi eta lagunak!



@karkara.eus/aiaorio/1418804534468



Sanikolasetan antolatutako I. Ziba Lehiaketa



@karkara.eus/aiaorio/1418044322772



Ikastolak antolatutako Herri Lasterketa



@karkara.eus/orio/1418630196940



AGENDA

Orio

Gabonak

- Abenduaren 24an, haurren kalez kaleko kantu-saioa. 10:45ean Ikastola ondo-ko plazan hasita.
- Abenduaren 24an, tonbola Ikastolako DBHko ikasleek antolatuta, 11:00tan plazan.
- Abenduaren 24an, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera herriko plazara.
- Abenduaren 26an, argiztapen autogeneratua eta parte-hartzailea, 17:30etan plazan.
- Abenduaren 27an abesti, jantzi eta jaiotza lehiaketa, 17:00etan Ikastolako Pergolan. Ondoren, gaztaina jana.
- Urtarrilaren 3an, gabonetako haur parkea Karelán. 11:00-13:30 eta 16:00-19:00.
- Urtarrilaren 5ean, erregeen karterua 11:00etatik aurrera herrian zehar.
- Urtarrilaren 5ean, erregeen kabalgata, 17:00etatik aurrera herrian zehar.

Herribil

- Abenduaren 26an, Herribil dantza emanaldia, 22:00etan Karelán.

Aurkezpena

- Abenduaren 31n, San Silbestre lasterketa Ikastola aurretik abiatuta. 11:30ean haurrak eta 12:00etan helduak.

Mandalara

- Abenduaren 19an, Astrologiari buruzko hitzaldia. 19:30ean Mandalara aretoan.
- Abenduaren 20an, Orgonita tailerra doan. 11:30ean herriko plazan.

AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Salgai

- Salarako altzaria, gerezi-ondo-egurrezko liburutegia. 221,5 x 243,5 x 37,5. Prezioa negoziagarria da. Tf: 649289154.
- Pisua salgai Abaro-

mendin. 61 metro karra-tu eta 140 metroko jardina. Bi logela, komuna, sala eta sukaldea. Erabat hornitua. 637419729

- Pisua salgai edo alokagai Kale Nagusian. 2 lo-

gela, sukalde-egongela eta komuna. Alokairua 500€, salmenta 140.000€ Tf: 661 679 691

- Garajea salgai Orioko Goiko Kalean -Almirante Oa-. Tf: 652727144

- Abenduaren 20an, haurrentzako tailerrak. 16:30ean kultur etxean.

Besteak

- Abenduaren 19an, *Lau esku, lau hanka, baina bi buru* organo emanaldia, 22:30ean Orioko elizan Xabier Lizaso eta Loreto Aramendi.
- Abenduaren 19an, bertso afaria Sukian. Jexux Mari Irazu eta Xabier Sukia. Izena emateko Sukiara deitu.
- Abenduaren 15etik urtarrilaren 15era Sahararako janari bilketa dendatan. Urtarrilaren 6tik 31ra, ikastetxeetan. Urtarrilaren 17an, plazan.

Aia

Gabonak

- Abenduaren 23an, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, 17:30etan.
- Abenduaren 24an, Gabonetako eskea. Goizean 9:00etan eta arratsaldean 17:00etan, plazan.
- Abenduaren 26an eta 27an, Aia-pin. Puzgarriak eta jolasak frontoian 16:00etatik 19:30era.
- Abenduaren 30ean, kirol txapelketa irekiak, 10:30etatik aurrera.
- Abenduaren 31n, San Silbestre Lasterketa. 17:00etan, izen ematea 16:30ean irekiko da.
- Urtarrilaren 2an, dantzaldia Amaia Txintxurreta DJarekin, 17:30ean. Ondoren, Bizar Zuriren etorrera.
- Urtarrilaren 5ean, Erregeen etorrera.
- Abenduaren 29an eta urtarrilaren 4an, zine emanaldiak 16:30ean eta 18:00etan Kultur Etxean.

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	11:05 eta 23:54	04:35 eta 17:25	
02	12:22 eta ____	05:53 eta 18:36	
03	01:03 eta 13:27	07:01 eta 19:36	
04	02:00 eta 14:21	07:58 eta 20:27	
05	02:48 eta 15:09	08:48 eta 21:13	
06	03:33 eta 15:54	09:34 eta 21:56	
07	04:14 eta 16:36	10:17 eta 22:37	
08	04:54 eta 17:16	10:59 eta 23:16	
09	05:34 eta 17:56	11:40 eta 23:55	
10	06:13 eta 18:36	12:21 eta ____	
11	06:52 eta 19:18	00:35 eta 13:04	
12	07:35 eta 20:04	01:17 eta 13:50	
13	08:23 eta 20:59	02:04 eta 14:42	
14	09:22 eta 22:07	02:59 eta 15:43	
15	10:33 eta 23:23	04:05 eta 16:52	
16	11:46 eta ____	05:17 eta 17:59	
17	00:29 eta 12:48	06:23 eta 18:56	
18	01:21 eta 13:37	07:17 eta 19:42	
19	02:04 eta 14:20	08:02 eta 20:23	
20	02:43 eta 14:58	08:43 eta 21:01	
21	03:19 eta 15:36	09:21 eta 21:39	
22	03:55 eta 16:13	09:59 eta 22:16	
23	04:31 eta 16:51	10:38 eta 22:54	
24	05:09 eta 17:31	11:19 eta 23:35	
25	05:50 eta 18:14	12:02 eta ____	
26	06:34 eta 19:02	00:18 eta 12:48	
27	07:23 eta 19:55	01:05 eta 13:40	
28	08:19 eta 20:58	01:59 eta 14:39	
29	09:25 eta 22:11	03:01 eta 15:46	
30	10:41 eta 23:28	04:12 eta 16:59	

ZAINTZAKO BOTIKAK

URTARRILA

- 1, 3 eta 4an, G. Artiñano
- 2, 5 eta 6an, Lasa.
- 7an, Zulaika.
- 8an, Larrañaga.
- 9an, Mutiozabal.
- 10 eta 11n, Etxeberria.
- 12tik 16ra, Lasa.
- 17 eta 18, Zulaika.
- 19an, Iriarte.
- 20an, Larrañaga.
- 21ean, Mutiozabal.
- 22an, Etxeberria.
- 23an, Zulaika.
- 24 eta 25ean, Larrañaga.
- 26an, Etxeberria.
- 27an, Mutiozabal.
- 28an, Larrañaga.
- 29an, Lasa.
- 30ean, Azaldegi.
- 31n, Mutiozabal.

Azaldegi: Urdaneta kalea, 8.
943 13 31 83 Zarautz

Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17.
943 83 23 98 Zarautz

Mutiozabal: Kale Nagusia, 12.
943 83 29 70 Zarautz

Larrañaga: S. Frantzisko, 16.
943 13 38 14 Zarautz

Lasa: Herriko plaza.
943 83 09 36 Orio

G. Artiñano: Zigordia kalea, 17.
943 13 40 19 Zarautz

Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz

Zulaika: Bizkaia kalea, 41
943 13 39 94 Zarautz

Kontrazaleko argazkia

Bilduma: Baratzak
Egilea: Iban Egiguren

EZ ZAITEZ LARANJA ERDIAREKIN KONFORMATU



**Gipuzkoako komertzio txikia.
Buruak eta bihotzak bat egiten duten lekua.**

